



**JOSU IÑAKI ERKOREKA** **JOSU IÑAKI ERKOREKA**  
**GERVASIO JAUNAK, EUSKO** **GERVASIO, CONSEJERO DE**  
**JAURLARITZAKO IDAZKARIA** **GOBERNANZA PÚBLICA Y**  
**ETA GOBERNANTZA PUBLIKO ETA** **AUTOGOBIERNO Y**  
**AUTOGOBERNUKO SAILBURUAK** **SECRETARIO DEL**  
**GOBIERNO VASCO**

**EGIAZTATZEN DUT:**

Eusko Jaurlaritzak, 2019ko otsailaren 12an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen

**ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ**  
**EBAZTEN DIREN EUSKADIKO**  
**INDUSTRIALDEETAN 2018KO**  
**EKITALDIRAKO BELAUNALDI**  
**BERRIKO BANDA ZABALEKO**  
**SAREAK HEDATZEKO LAGUNTZEN**  
**PROGRAMA ARAUTZEN ETA**  
**DEITZEN DUEN AGINDUAREN**  
**BARRUAN AURKEZTUTAKO**  
**ESKAERAK.** (EXP. 2019/00072) (A/20190016)

2018ko urriaren 24ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautu eta horiek deitzen dituen, 2018ko ekitaldirako.

Agindu honen xedea da jarduera ekonomikoak, ahal dela industrialak, hartzen

**CERTIFICO:**

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 12 de febrero de 2019 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**ACUERDO POR EL QUE SE**  
**RESUELVEN LAS SOLICITUDES**  
**PRESENTADAS EN EL MARCO**  
**DE LA ORDEN QUE REGULA Y**  
**CONVOCA, PARA EL EJERCICIO**  
**2018, EL PROGRAMA DE**  
**AYUDAS A LA EXTENSIÓN DE**  
**REDES DE BANDA ANCHA DE**  
**NUEVA GENERACIÓN EN**  
**POLÍGONOS EMPRESARIALES**  
**DE EUSKADI.** (EXP. 2019/00072)  
 (A/20190016)

La Orden de 24 de octubre de 2018, de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, regula y convoca, para el ejercicio 2018, el programa de ayudas a la extensión de redes de banda ancha de nueva generación en polígonos empresariales de Euskadi.

Es objeto de la misma reglar la concesión de ayudas para extender las





dituzten edo hartzea aurreikusita duten Euskadiko gune geografikoetan banda zabal ultraazkarreko sareak hedatzeko laguntzak arautzea, gune horiek "NGA gune zuritzat" hartzen badira, hau da, NGA Banda Zabaleko baldintzetan Interneten sartzeko zerbitzuak ahalbidetzeko telekomunikazioen azpiegiturarik egon ez eta datozen 3 urteetan egotea espero ez den guneak. Aipatutako helbururako, 1.500.000,00 euroko baliabide ekonomikoak daude

redes de banda ancha ultrarrápida en aquellas zonas geográficas de Euskadi en las que se realiza, o se tiene previsto realizar actividades económicas, preferentemente industriales, que tienen la consideración de «zonas blancas NGA», esto es, en las que ni existe, ni se prevé que exista en los próximos 3 años, infraestructuras de telecomunicaciones que permitan los servicios de acceso a Internet en condiciones de Banda Ancha NGA. Los recursos económicos destinados a la citada finalidad ascienden a la cantidad de 1.500.000,00 euros.

Laguntzen programan ezartzen denaren arabera, aipatu Aginduan adierazitako dirulaguntzen onuradunak izan daitezke sektore pribatuko pertsona fisikoak edo juridikoak, behar bezala gaitutako operadorearen izaera badute, Telekomunikazioei buruzko 9/2014 Lege Orokorraren, maiatzaren 9koaren, 6 eta 7 artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta 2018ko ekitaldirako Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautu eta deitzen dituen Aginduan eskatutako gainerako betekizunak betetzen badituzte.

Acceden a la condición de entidades beneficiarias de las subvenciones contempladas en la citada Orden las personas físicas o jurídicas pertenecientes al sector privado, que ostentan la condición de operador debidamente habilitado, conforme a lo establecido en los artículos 6 y 7 de la Ley 9/2014, de 9 de mayo, General de Telecomunicaciones, y cumplen con el resto de los requisitos exigidos en la Orden que regula y convoca, para el ejercicio 2018, el programa de ayudas a la extensión de redes de banda ancha de nueva generación en polígonos empresariales de Euskadi.

Erakunde interesdunek eskaerak eta gainerako agiriak aurkeztu dituzte, Euskadiko industrialdietan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko Aginduaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Ebaluazio Organoak, aipatutako Aginduaren 12. artikulua horretako xedapenekin bat etorrita, egin ditu aurkeztutako eskaeren analisia, ebaluazioa eta balorazioa, eta horrekin batera, agindu honetan xedatutako dirulaguntzetarako esleipen-proposamenak

Las entidades interesadas han presentado sus solicitudes, y demás documentación, conforme a lo dispuesto en el artículo 9 de la Orden que regula el programa de ayudas a la extensión de redes de banda ancha de nueva generación en polígonos empresariales de Euskadi, y el Órgano de Evaluación, conforme a los criterios establecidos en el artículo 12, de la citada Orden, ha realizado el análisis, evaluación y valoración de las solicitudes presentadas, así como la elaboración de las propuestas de concesión.

Ebaluazio Organoak, aurkeztutako proiektuak aztertu eta ebaluatu ondoren, enpresa interesdunei jakinarazi die behin-behineko proposamena, 10 eguneko epean egoki irizitako alegazioak aurkez zitzaten, dirulaguntzak emateko behin betiko proposamena

El órgano de evaluación, tras el estudio y evaluación de los proyectos presentados, trasladó a las empresas interesadas una propuesta provisional para que, en el plazo de 10 días, formularan las alegaciones que



egin aurretik. 2019ko urtarrilaren 4an amaitu zen epea eta enpresa batek ere ez du aurkeztu horri buruzko dokumentaziorik.

estimasen oportunas, previo a la propuesta definitiva de concesión de subvención, sin que ninguna, en el plazo que finalizó el 4 de enero de 2019, haya aportado documentación al respecto.

Dirulaguntza jaso dezaketen industrialdeen lau sortetatik, bakarrik lehenengo biek sortu dute interesa, eta 3. eta 4. sortetan ez da eskaerarik aurkeztu.

De los cuatro lotes de polígonos empresariales susceptibles de obtener subvención, solo los dos primeros han sido objeto de interés, sin que para los lotes 3 y 4 se haya presentado solicitud alguna.

2018ko ekitaldirako Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzen programa arautu eta deitzen duen Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko urriaren 24ko Aginduaren 13. artikulua xedatzen duenez, aurkeztutako eskariak prozedura bakarrean tramitatuko dira, eta horren ebazpena Gobernu Kontseiluari dagokio, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak eskatuta, zeinak 2019ko urtarrilaren 9an Ebaluazio Organoak formulatutako proposamena helaraziko dion.

El artículo 13 de la Orden de 24 de octubre de 2018, que regula y convoca, para el ejercicio 2018, el programa de ayudas a la extensión de redes de banda ancha de nueva generación en polígonos empresariales de Euskadi, dispone que las solicitudes presentadas se tramitarán en un único procedimiento, cuya resolución corresponde al Consejo de Gobierno a instancia de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, que será quien dé traslado de la propuesta definitiva formulada, el 9 de enero de 2019, por el Órgano de Evaluación.

Horren arabera, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak proposatuta, eta zegokion deliberamendua egin ondoren, honako hau erabakitzen du Gobernu Kontseiluak

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras y previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

## ERABAKIA

## ACUERDO

“Lehenengoa.- Erakunde onuradunei ondoko laguntza hauek ematea:

“Primero.- Conceder a las entidades beneficiarias las siguientes ayudas:

### Poligonoak.Sortak

Poligonoak. Sortak Lote polígonos	Enpresa esleipenduna Empresa adjudicataria	Espediente-kodea Código expediente	Exekuzio-epea Plazo de ejecución	Dirulaguntzaren zenbatekoa Importe de la subvención
LOTE 1 1. SORTA	VODAFONE-ONO	PEBA-0009-2018	12 meses./ hilabete	610.763,82 €
LOTE 2 2. SORTA	EUSKALTEL S.A.	PEBA-0008-2018	12 meses./ hilabete	125.347,81 €

Bigarrena - Honako eskaera hauek Segundo.- Denegar las siguientes ukatzea: solicitudes:

Poligonoak. Sortak Lote Lote polígonos	Empresa solicitante Empresa eskatzailea	Espediente-kodea Código expediente	Motivo de denegación Ukatzeko arrazoa
LOTE 1 1. SORTA	EUSKALTEL S.A.	PEBA-0007-2018	En base a los criterios de evaluación, la puntuación obtenida es 80,47. La beneficiaria obtuvo 87,50. Ebaluazio-irizpideen arabera, lortutako puntuazioa 80,47 da. Onuradunak 87,50 lortu du.
LOTE 1 1. SORTA	TELEFONICA DE ESPAÑA SAU	PEBA-0005-2018	En base a los criterios de evaluación, la puntuación obtenida es 80,03. La beneficiaria obtuvo 87,50. Ebaluazio-irizpideen arabera, lortutako puntuazioa 80,03 da. Onuradunak 87,50 lortu du.
LOTE 2 2. SORTA	TELEFONICA DE ESPAÑA SAU	PEBA-0006-2018	En base a los criterios de evaluación, la puntuación obtenida es 41,98. La beneficiaria obtuvo 90,5. Ebaluazio-irizpideen arabera, lortutako puntuazioa 41,98 da. Onuradunak 90,5 lortu du.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea. Erabakia aurkatu ahal izango da Jaurlaritzaren Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarrita Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean”

Tercero.- Notificar este Acuerdo a todas las entidades interesadas, contra el que podrán interponer recurso de reposición, ante este Consejo de Gobierno, en el plazo de un mes o, directamente, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses”.

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 19an.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 19 de febrero de 2019.